

BERGARAKO UDALA

Udaleko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko buruaren plaza lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak

Lehena. Deialdiaren xedea.

Honako deialdi honen xedea da jabetzan betetzea, lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez, Udaleko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko buruaren plaza, Administrazio Orokorreko eskalakoa, Teknikarien Goi Mailako Teknikarien klasekoa eta A1 taldean sailkatua, Bergarako Udaleko pertsonal funtzionarioaren taulan bete gabe dagoena.

Lanpostua Udaleko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuan sartuko da eta eginkizun eta ardura nagusiak 2. oinarrian zerrendatzen direnak izango ditu.

Deialdiko lanpostuak Bergarako Udaleko langileriaren lan-harremanak arautzen dituen hitzarmenak jasotako Ordainsarien Taulako 13. maila du, eta derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkotasun-data beteta duelarik. Plaza honen balorazioa egin gabe dago eta balorazioaren atzeraeraginak izendapenaren lehen egunetik aplikatuko dira.

Plazaren dedikazio-erregimena lanaldi hedatukoa eta erabateko dedikaziokoa da. Lanaldia udalak urtean-urtean finkatzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia espezifikoak aintzat harturik.

Azterketen faseko ariketa kanporatzaileak gainditu dituzten hautagaiek deialdiko plazen kopurua gainditzen badute, soberakoen lista erabili ahalko da lanpostu berdinetan edo antzekoetan enplegatu ez finkoen beharrak betetzeko.

Bigarrena. Eginkizunak.

Deialdiaren xedeko lanpostuaren funtzioak eta eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

1.- Departamentuko buru eta antolaketa-arduradun gisa dagozkionak.

- Udaleko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko pertsonalaren buru, arduradun eta koordinatzailea den aldetik:
 - Langile bakoitzaren lanaren jarraipena egin eta proposatu errendimenduak hobetzeko neurriak, formazioa, berrantolaketa..., bakoitzarekin komunikazioa eta lidergoa indartuz
 - Departamentuan egin beharreko arduren eta funtzionamendurako egokitzapen neurriak proposatu
 - Langileen lana antolatu eta gainbegiratu
 - Lizentziak onartu, egutegiak eta lanaren banaketa egin

- Diziplina zaindu
 - Departamentuko kudeaketa-plana egin, aurrekontu-proposamena osatu, onartutakoan kudeatzeaz arduratu eta urteko memoria idaztea.
 - Departamentuari eta alorrari dagokionean, ingurumen alorreko ardurak dituzten beste departamentuetako langileekin ere koordinazioa bultzatu.
 - Departamentuari eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintza alorrei dagozkien gaietan, alor horiekin zerkusia duten ardurak dituzten beste departamentuetako langileekin ere koordinazioa eta lankidetzatza bultzatu
 - Departamentu barruan eta beste zerbitzuekin elkarlanean, hala dagokionetan, aholkularitza eman.
 - Departamentuan udalarenak diren balore hauek bultzatzea: partaidetza, gardentasuna, eraginkortasun administratiboa, euskalduntasuna eta berdintasuna, pertsonen eta langileen garapena, eta horretarako elkarlana eta komunikazioa sustatuz.
 - Udalaren uneko baloreak indarrean jartzeko dagozkion neurriak abian jartzeko bideak egin.
 - Baliabide informatikoak eta teknologia berrien inplementazioa bultzatu, horien garapena helburu izanda horiekin hobetzeko aukerak aztertu eta udalari proposatu eta kudeatu.
 - Departamentuko kontratazio-espeditetean, eta beste departamentuetakoetan ere, bere ezagutzaren beharra edo premia dagoenean, aholkularitza teknikoa eman eta Kontratazio-mahaian kide izan eta parte hartu.
 - Hirigintza arloan eta ingurumenean herritarren sentsibilizazioa bultzatu (neurriak proposatu eta horiek garatzeko prozedurak antolatu, departamentuko eta udaleko beste departamentuekin lankidetzatza bultzatuz....).
 - Udalaz kanpoko diru-laguntzen aurreikuspena egin eta kudeatzeko ardurak banatu/antolatu.
 - Departamentuaren inplikazioa bultzatu udalak antolaketarako edo hobekuntzarako abian jarritako proiektuetan.
 - Departamentuan, dagokion teknikariarekin bideratu bere ardurapekoak izanda bere menpeko langileei dagozkien funtzioak.
- 2.- Hiri Planeamenduari lotura dutenak, eta horietaz:
- Plan Orokorra gainbegiratu eta aldatzeko/zuzentzeko ardura hartu: haren aldaketak idazten edo horretarako behar den kontratazioa bideratu, prozeduraz aholkatu eta koordinazioan parte hartu.
 - Plan Orokorren garapenerako planeamenduan parte hartu.
 - Herriko hirigintza alorreko araudi berria egin edo aurretik dagoenean aldaketak/moldaketak bultzatu eta idazteko lantaldeetan parte hartu, dagokion aholkularitza eta koordinazioa eragiteko.
 - Garatu behar den planeamenduari buruz informatu eta garapenerako planeamendu-tresnak idaztean parte hartu.

- Herriari edo udalari eragingo dieten udalaz gainera planeamenduak aztertu eta horien inguruan udala informatu jendaurreko fasean daudenean.
- Hirigintza-hitzarmenak idazteko orduan aholkularitza ematea.
- Udal Plangintzako Aholku Batzordeari dagokionez, eman beharreko aholkularitza eskaintzea.

3.- Hirigintza-kudeaketaren eta ingurumen-hirigintza kudeaketaren arduri dagokienean:

- Zoruaren udal ondarea kudeatu.
- Ondasunak baloratzeko txostenak eta era guztietako txosten teknikoak egin.
- Hirigintza-hitzarmenen negoziatorako udala aholkatu, ordezkatu eta haien jarraipena gainbegiratu.
- Hirugarrenek bultzatutako urbanizazio eta eraikitze lanetan:
 - Udala ordezkatu Konpentsazio Batzordeetan eta urbanizazio pribatuen jarraipen-batzordeetan.
 - Proiektuak informatu eta obren onarpena eta jarraipena egin. Lur Publikoa izango den esparruan jarraipen-batzordea sustatu, koordinatu eta kudeatu.
 - Proiektuak baloratu, planeamendura eta indarrean dagoen araudira egokitzen diren edo ez aztertzeko.
 - Obrak bisitatu eta konponbideak proposatu, kontsultak erantzuteko.
 - Bukatutako obrak bisitatu, lehenengo erabilpenaren lizentzia emateko.
 - Eraikuntza berrien zuinketak egin eta aktak jaso eta sinatu.
 - Obra handien proiektuei buruzko txosten teknikoak egin.
- Desjabetze-espedituei buruzko txostenak, neurketak, etab. egin.
- Udalak bultzatutako obra edo lanetan:
 - Obren proiektuak idatzi edo horien kontratazioa bideratu, behar diren informazio eta txosten teknikoak eginez, eta onarpenerako txostena egin.
 - Obrak zuzendu, eta koordinatu eta gainbegiratu.
 - Laguntza eta aholkularitza eman, inbertsioak aztertzean eta diseinatzean.
- Hirigintza-gaiei buruzko zigor-espeditueak edo zuzenketa-neurriak bultzatu (hirigintza eta ingurumen arloko araudiaren kontrako ekintzen edo jardueren txostenak egin, eta legeak edo araudiak aurreikusitako ondorioak proposatu eta horiek aurrera egiteko prozedura abiatzea proposatu organo agintedunari).

4.- Ingurumen arloko arduri dagokienean:

- Ingurumena eta ingurumen-politikak sustatu, eta kudeaketarako eta jarraipenerako ardura orokorra hartu.

- Udaleko ingurumen-unitateetako jarduerak zuzendu eta koordinatu.
- Ingurumenari buruzko txosten teknikoak idatzi edo dagokion teknikariarekin bideratu eta koordinatu: isurtegiatarako lizentzienak, kutsatutako lurzoruei buruzkoak...
- Berak edo/eta beste teknikariekin koordinatuz, ingurumen-izaerako ordenantzak proposatu, garatu eta idatzi.
- Ingurumen-gaietan udalari egindako kontsultei erantzun, horietaz informatu, horiek izapidetu, edo horietarako dagokion teknikariaren bitartez bideratu.
- Ingurumenari buruzko obra, zerbitzu eta laguntza teknikoko kontratazio-mahaietan parte hartu, berari edo alorreko teknikariei dagokienean.
- Sailaren aurrekontua prestatzerakoan, ingurumenari dagokionean beste teknikariekin koordinatu eta integratu.
- “Jarduera-espedituetan” ardura tekniko hartu –kalifikatu, txostena egin...– edo bideratu.

5.- Herritarren kontsultei erantzun, ahoz edo/eta batzordeetara dagokien erantzun-txostena bideratuz.

6.- Laguntza tekniko eta aholkularitza tekniko-juridikoa eman, alkateari eta udalkideei.

7.- Udalak erabakitako batzordeetan nahiz zeharkako udaleko gai edo prozesuetan, lantaldeen bileretan eta ekintzetan parte hartu, edo dagokion teknikariarekin departamentuaren partaidetza bideratu.

8.- Eta, oro har, bere ezagupeneko arloaren eta kategoriaren barruan, haren arduradun hierarkikoak eskatzen dizkion egiteko guztiak.

— **Hirugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak.**

Azterketazko lehiaketa honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Europako Batasuneko estatu kideetakoren bateko herritarra izatea, edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako tratatu nazioartekoen bertutez langileen zirkulazio librea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritarra izatea, urriaren 30ean onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 57. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Halaber hartu ahalko dute parte espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduak ez badaude, bai eta haren eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, era berean, zuzenbidez bananduak ez badaude, baldin eta hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, urte gehiagoko adina izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gaintitzea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: arkitekto titulua.

d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hau dagokion unean egiaztatu beharko du hautagai proposatuak.

e) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, Herri Administrazioei edo konstituzio-organismoari nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organismoari dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaiuntzarik edo desgaiuntza berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan-kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzaitekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

f) Funtzionario publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legezko xedapenek ezarritako baldintzetan.

h) 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara-maila, derrigorrezkoa. Hala ere, 1990eko uztailaren 24ko Udal Osoko Bilkuraren erabakiari jarraituz, 3. hizkuntz eskakizuna dutenak ere onartuak izango dira, eta plaza ateratzen duenak urte eta erdiko epea izango du 4. hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko.

Horrela egingo ez balu, izendapena indargabetu eta eskubide guztiak galduko lituzke.

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea.

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori oinarri hauei erantsirik doa, Eranskin gisa. Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean egongo da eskuragai, 9.00etatik 13.00etara bitartean, astelehenetik ostiralera, eta halaber eskuratu ahalko da Udalaren web-gunean (www.bergara.eus).

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuta.

b) Gainera, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.

— Deialdian parte hartzeko beharrezkotzat eskatutako tituluaren fotokopia.

— Kasua hala bada, 4. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo deialdiko 7. oinarrian aipatzen diren euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.

— Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko. Dokumentu horiek, nahitaez, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira. Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak edota eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuekin eta instantziak aurkezteko epean egiaztatu ez direnak.

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez

horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira, eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira, eta Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiriarekin batera aurkeztuta. Egiaztagirietan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarpena ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta gehienez ere hogei (20) egun naturaleko epean.

Eskabideak, era berean, [39/2015 Legearen](#) (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen) 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dituzte. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Egitezko errakuntzarik hautematen bada edozein unetan zuzendu ahal izango da, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo horiek egiaztatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esango dena.

Bosgarrena. Hautagaien onarpena.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Korporazioko alkate-lehendakariak hautagai onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onetsiko du, zeinetan adieraziko baititu, kasua hala bada, baztertzearen kausak. Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Bergarako Udalaren iragarpenen taulan jarriko da ikusgai, bai halaber Udalaren web-gunean (www.bergara.eus).

[39/2015 Legearen](#) (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen) 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako zerrenda behin-behineko horretan kanporatutzat ageri diren hautagaiei hamar (10) egun balioduneko epea emango zaie, zerrenda hori GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, baztertua gertatzea kausatu duten errakuntzak edo omisioak zuzentzeko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da

hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta udalaren iragarki-taulan eta Bergarako udaleko web-orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra, errekurtsio kontentzioso-administratiboa jarri ahalko da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan, onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda Bergarako Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsio aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsioa jarri ahalko da, hilabeteko epean.

Seigarrena. Epaimahai Kalifikatzailea

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari batek prozesu osoan eta beste batek euskararen frogarako hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udlean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda

hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaiaren ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkaturiko du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko arduraz izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Zazpigarrena. Azterketen fasea (oposizioa).

Lehen ariketaren deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren iragarpenen taulan emango da argitara, bai halaber Udalaren web-gunean (www.bergara.eus), eta deialdian adieraziko da zein egun eta orduetan hasiko den eta zein lekutan egingo den. Hurrengo ariketak aditzera emateko egokiena deritzon moduan iragarriko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak.

Hautagai guztiek batera egin ezin dituzten ariketetan, esku-hartzeko ordena zozketa bidez egiaztatuko da; horretarako, epaimahaiak osaketa-bilera egiten duenean egingo du zozketa eta izangaiei ezagutzera emango die, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azterketen fasean, ondoko ariketa hauek egingo dira:

— **Lehen ariketa:** Derrigorrezkoak eta baztertzaileak hautagai guztientzat.

Bi atal izango ditu, bata teorikoa eta bestea izaera praktikokoa. Epaimahaiak erabakiko du froga hau gainditzeko atera beharreko gutxieneakoak, eta izangaiei jakitera emango die frogak hasi aurretik.

a) Atal teorikoa: Oinarri hauen I. Eranskinetako gaien edukiarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezartzen duen denboran.

Epaimahai Kalifikatzailearen irizpidearen baitan geratzen da ariketa hau egitean zein prozedurari jarraitu finkatzea (test moduko galdera-sorta, gai bat edo batzuk garatzea, etab.), eta, kasua hala bada, gaizki erantzundako galderak nola penalizatu zehaztea.

Lehen ariketako lehen atal honi hogeita bost (25) puntu emango zaizkio gehienez, eta prozesuan aurrera jarraitzeko 12,5 puntu atera beharko dira..

b) Atal praktikoa: Epaimahai Kalifikatzaileak zehazten dituen suposizio edo kasu praktikokoak ebatzi beharko dira. Oinarri hauen I. Eranskinetako gaien edukiarekin edo/eta lanpostuaren berezko funtzioekin zerikusia dutenak izango dira.

Lehen ariketako bigarren atal honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta prozesuan aurrera jarraitzeko 20 puntu atera beharko dira.

— **Bigarren ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzailea: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesioerakoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzerako bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da, elkarriketarekin batera.

Bigarren ariketa honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta 24 puntu bederen lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

— **Hirugarren ariketa:** Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira. Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat. Gai edo Ez gai baloratuko da

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko frogak egingo dira.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 4. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkezten diotenenek.

Honako hauek dira euskara-tituluen arteko baliokidetzak jasotzen duten araudiak: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena; eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena.

4. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahalko da:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 4. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
- Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze indarrean dagoen araudiak diotenen arabera.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak Bergarako udalerrian edota HAEE-IVAPEk horretarako zehaztutako beste edozein tokitan egin ahalko dira. Nolanahi ere, proba horiek egitearen ondorioz hautagaiei sor zaizkiekeen joan-etorriko gastuak, mantenukoak eta abar beraien kontura izango dira.

Zortzigarrena. Azterketen fasearen jardunbidea.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal dezake ariketak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz bestela egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Baldin eta hautagaien bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren, hauta-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta udalaren web-gunean (www.bergara.eus) argitaratuko du ariketa gainditu duten hautagaien lista.

Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentziasuna berma dadin, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzenduak izan daitezzen.

Bederatzigarrena. Merezimenduen fasea (lehiaketa).

Azterketen fasea gainditzten duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira. Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu, baldin eta 4. oinarriko b) letran xedaturikoaren arabera edo/eta oinarri honetan jasotakoari jarraituz behar bezala kreditatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuz:

a) Administrazio publikoan duen esperientzia profesionala:

Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, bete behar den lanpostuarekin lotutako buruzagitzako funtzio gehienak betetzen, hau da, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko departamentuko edo funtzio horiek dituen departamentu bateko buru eta bertako pertsonalaren arduradun lanetan eginak badira, gehienez ere **hamabost (15) punturekin** baloratuko dira, zerbitzuko hilabete oso bakoitzeko 0,20 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Dedikazioa lanaldi osokoa ez bada izan, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Ondorio horietarako, atal honetan baloratzeko eraginetarako, administrazio publikoan egindako zerbitzutzat joko dira zuzeneko erlazioaren bidez eginak –funtzionario gisa zuzenbide administratiboaren erregimenean edo langile laboral gisa zuzenbide laboralaren erregimenean–. Ez dira baloratuko, Euskadiko Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 96.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

b) Administrazio publikoan egindako beste zerbitzuak:

Arkitekto titulazioari dagokion lanpostua edo funtzioak betetzen administrazio publikoan egindako zerbitzuak gehienez ere **zortzi (8) punturekin** kalifikatuko dira, zerbitzuko

hilabete oso bakoitzeko 0,15 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Dedikazioa lanaldi osokoa ez bada izan, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Ondorio horietarako, zuzeneko erlazioaren bidez eta zuzenbide administratiboaren erregimenean funtzionario gisa edo zuzenbide laboralaren erregimenean eginak joko dira administrazio publikoan egindako zerbitzutzat, atal honetan baloratzeko eraginetarako. Ez dira ebaluagai izango, Euskadiko Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 96.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsonal ebentualaren lanpostuetan egindako zerbitzuak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

c) Beste zerbitzuak:

Beste zerbitzu hauek ere baloratuko dira, betiere kreditatuak izan balira, eta atal honetan gehienez ere **hamar (10) puntu jaso ahalko dira.**

C.1.- Arkitekto titulazioari dagokion lanpostua edo funtzioak betetzen esparru pribatuan eta zuzeneko erlazioaren bidez inoren konturako kontratuarekin egindako lanak baloratuko dira, hilabete oso bakoitzeko 0,10 puntu esleituz (gutxiagoko frakzioak ez dira konputatuko). Atal honetan gehienez ere **5 puntu** lortuko dira

Ondorio horietarako, zuzeneko erlazioaren bidez zuzenbide laboralaren erregimenean eginak joko dira atal honetan baloratzeko eraginetarako. Ez dira ebaluagai izango, atal honetan autonomo gisa egindakoak, ez eta bekak eta formazioko praktikak ere.

C.2.- Halaber arkitekto gisa eta profesional izaerako kontratuarekin edo izendapenarekin honako hiri-planeamendu tresnak idazteko lan hauek ardura zuzenarekin egin izana baloratuko da :

1. Plan Orokorra edo Arau subsidiarioak idaztea:
 - a. 20.000 biztanletik gorako herria: 4 puntu
 - b. 20.000 biztanletik beherako herria: 3 puntu
2. Plan partziala idaztea:
 - a. 20.000 biztanletik gorako herria: 3 puntu
 - b. 20.000 biztanletik beherako herria: 2 puntu
3. Plan Berezia idaztea:
 - a. 20.000 biztanletik gorako herria: 3 puntu
 - b. 20.000 biztanletik beherako herria: 2 puntu
4. Xehetasun Azterlana idaztea: 3 puntu

Atal honetan gehienez ere **8 puntu** lortu ahalko dira.

Atal honetan egindako lanak egin direla frogatzen dutenei (dagokien izendapena edo/eta hitzarmena sinatu eta exekutatu izanaren agiriarekin edo harreraren agiriarekin lagunduta) egindako lan edo proiektu bakoitza 1,5 puntu arte baloratuko da.

d) Formazio osagarria:

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da **gehienez ere 10 puntura arte.**

Ikastaroek gutxienez 30 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 30 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira. Horren guztiaren eraginetarako, baloratuko direnak hauek izango dira:

1.- Giza Baliabideen kudeaketa edo pertsonen kudeaketaren inguruko formazioa, Antolaketaren inguruko formazioa. Bakoitza gehienez ere 3 punturekin.

2.-Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumenaren inguruan EVETU edo pareko erakundeek emandako ikastaroak/jardunaldiak.Bakoitza gehienez ere 5 punturekin.

Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaroak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena, ordutan, jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

Hamargarrena. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, azterketen fasean (oposizioan) eta merezimenduen fasean (lehiaketan) lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek zehaztuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkera.

Berdinketa egongo balitz, honela erabakiko da, eta hurrenkera honetan:

- a) Bigarren ariketan puntuazio handiagoa ateratzea.
- b) Lehen ariketako b) ataleko ariketa praktikoan puntu-batura handiagoa ateratzea.
- c) Oraindik ere berdinketarik gertatuz gero, lehentasuna emango zaie emakumeei, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpenen taulan eta Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) emango ditu argitara oposizio-lehiaketa gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienekotik gutxienekora ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen izendatzeko proposamena egingo du. Baldin eta, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxieneko kondizioak betetzen dituenik, esleitu gabe uztea erabaki ahalko du.

Epaimahai Kalifikatzaileak, ezein kasutan ere, ez ditu deialdian iragarritako plazak baino hautagai gehiago proposatuko. Hala ere, Bergarako Udaleko pertsonalean gerta daitezkeen hutsuneak aldi batez bete ahal izateko, izaera kanporatzaileko ariketak gainditu dituzten hautagaien zerrenda erantsi beharko dio proposamenari, lortutako puntuen arabera ordenatua.

Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko dio akta, behar den izendapena egin dezan.

Hautagai proposatuak hogeita (20) egun naturaleko epean –probak gainditu dituzten hautagaien zerrenda argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita– ekarri egin beharko ditu hauta-prozesuan parte hartzeko beharrezkotzat eskatu diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiri jatorrizkoak.

Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan gabe, hautagai proposatuak agiriak aurkeztu ez baditu edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituenik egiaztatu ez badu, ezingo da izendatua izan eta haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Ondorioz, funtzionario izendatua izateko dituzkeen eskubide guztiak galduko ditu, alde batera utzi gabe hasierako eskabidean gezurra jartzeagatik legokiokeen erantzukizuna. Kasu horretan, oposizio-lehiaketa gainditu dutenen artetik, puntu-kopuru finalaren ordenan hurrengo lekua betetzen duena izendatzeko proposamena formulatuko da. Hori baino lehen, beharrezkotzat eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du. Modu berean jardungo da baldin eta praktiketako funtzionario izendaturiko hautagaiak praktiketako eta prestakuntzako epealdia gainditzen ez badu.

Hamaikagarrena. Praktiketako eta prestakuntzako epealdia, eta izendapena.

Organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko hautagaia, betiere aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu dituenean.

Praktiketako eta prestakuntzako epealdiaren iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da. Denbora hori efektiboki burutu beharko du, eta, gainera, izaera kanporatzailea izango du.

Denboraldi hori amaitu aurretik, probaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo du gainera daukan hurrengo buruak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientziaren zentzua, lanerako prestasuna eta inizatiba, eta lanarekiko agertutako interesa. Lantaldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan. Hautagaiak praktiketako eta prestakuntzako epealdia gainditzen badu, karrerako funtzionario izendatua izango da, eta izendapena jakinarazten zaionetik kontatzen hasi eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epean jabetu beharko da karguaz. Horrela egin ezean, eskubide guztiak galduko ditu eta erabakitako izendapena indarririk gabe geratuko da.

Hamabigarrena. Intzidentziak.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

Hamahirugarrena. Lan-poltsa

Lanpostua eskuratu ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko departamentu-buruaren lanpostua aldi baterako betetzeko premiei erantzuteko edo udaleko perfil horrekin egon daitezkeen kontratazio-premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da ebazpenarekin batera.

Lan-poltsak, indarrean jartzen denetik kontatzen hasita, urtebeteko balioa izango du, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendurako, Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretuaren bidez onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio (eranskin gisa dago jasota).

Hamalaugarrena. Inpugnazioak.

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.

Hamabosgarrena. Dokumentazioa Itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

I. ERANSKINA

1. 1978ko Konstituzioa. Konstituzioaren printzipioak: Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa. Espainiako Konstituzioaren balio gorenak.
2. 1978ko Konstituzioa. 33. artikulua eta sinopsia.
3. Administrazio publikoen erantzukizuna. Ondare-erantzukizuna. Erantzukizunaren egintza. Administrazio publikoen zerbitzuko agintarien eta langileen erantzukizuna.
4. Administrazio prozedura: Urriaren 1eko [39/2015 Legea](#) (Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legea): Printzipio orokorrak. Interesdunak. Herritarren eskubideak. Administrazio prozedura.
5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea.
6. Toki Erakundeen ondasunak. Sailkapena. Jabari publikoko ondasunen erabilera-erregimena.
7. Toki Erakundeetako ordenantza eta erregelamenduak. Motak. Egiteko eta onartzeko prozedurak.
8. Herri Administrazioen kontratuak. Kontratu administratiboen elementuak. Subjektuak. Kontratu publikoen xedea eta kausa. Kontratu administratiboen motak. Kontratazio administratiboen forma eta kontratistak hautatzeko sistemak. Kontratua betetzea eta amaitzea.
9. Toki Ogasunak. Sarrerren sailkapena. Ordenantza fiskalak. Zerga Ogasuna toki-erakundeen esparruan. Tasen, zerga berezien eta zerga orokorren azterketa berezia.
10. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa: II. eta III. tituluak.
11. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herriaginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.
12. Maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa. Lurralde-antolamenduko tresnak.
13. Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua, Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena: Udal planeamenduan zuzenean aplikatu beharreko zehaztapen lotesleak.
14. Urtarrilaren 4/2016 Dekretua, zeinaren bidez Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez. Kontzeptu orokorrak.
15. Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duena, eta hori aldatu duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua. Alderdi orokorrak: Antolamendu-esparrua eta definizio terminologikoak. Ertzen tartekak eta zonak bereiztea.

16. Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urarena: Arau eta printzipio orokorrak. Arau orokorrak.
17. 262/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana onartzekoa: Hirigintza-antolamendurako eragina.
18. 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Xedapen orokorrak. Antolamendu-kategoriak.
19. 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
20. Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa: Errepideen hierarkizazioa eta nomenklatura. Ondoko eremuak babesteko araubidea eta horiek erabiltzeko eta horietan eraikitzeko baldintzak.
21. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. Xedea, printzipioak, definizioak, ebaluazioa igaro beharraren erabakia, eskumenak, erreferentziako agiria, ingurumen-iraunkortasuna eta ingurumen-memoria.
22. 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa: Kultur ondarea osatzen duten ondasunak. Ondasun kultural kalifikatuak eta Babes Araubidea.
23. Urriaren 30eko 7/2015 Errege Dekretu Legegilea, Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzearen Legearen Testu Bateratua onartzekoa (LLTB). Definizioak. Lurralde- eta hiri-garapen iraunkorraren printzipioa. Hirigintza-eraldaketan jarduketak eta eraikitze-jarduketak. Ekimen publikoa eta pribatua jarduketetan.
24. LLTB: Lurzoruaren jabetza-eskubidearen hirigintza-araubidea. Lurzoruaren jabetza-eskubidearen edukia: Gaitasunak, betebeharrekoak eta zamak.
25. LLTB: Lurzoruaren araubidearen oinarriak: Lurzorua erabiltzeko oinarrizko irizpideak. Lurzoruaren oinarrizko egoerak.
26. LLTB: Balorazioak. Nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna.
27. Ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (LHL): Hirigintzaren printzipio orokorrak.
28. LHL: Sailkapena: Lurzoru motak eta kategoriak. Lurzoruaren kalifikazioa.
29. LHL: Lurzoruaren araubidea. Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru urbanizagarria eta hiri-lurzorua. Lurzoruen eraikigarritasuna. Behin-behineko erabilerak.
30. LHL: Hirigintzako antolamendua eta plangintza: Hirigintza-antolamendua eta lurralde-antolamenduarekin duen lotura.
31. LHL: Hirigintza-antolamenduko planak eta gaineko tresnak.
32. LHL: Kopuruak eta estandarrak.
33. LHL: Hirigintza-antolamenduko planak eta gaineko tresnak tramitatzea eta onartzea.
34. LHL: Hirigintza-antolamendua gauzatzea: Jarduketa-esparruak eta jarduketa-motak. Exekuzio-unitateak. Urbanizatzeko Jarduketa Programak.

35. LHL: - Jarduketa-sistemak.
36. LHL: Urbanizazio-proiektuak eta obra osagarrienak.
37. Azaroaren 5eko 38/1999 Legea, Eraikuntza Antolatzekoa: Xedapen orokorrak eta eraikuntzako betebeharrak tekniko eta administratiboak. Eraikuntzaren eragileek, erantzukizunak eta bermeak.
38. Abenduaren 4ko 20/1997 Legea, Irisgarritasuna Sustatzekoa: Irisgarritasuna bermatzeko eta kontrolatzeko neurriak.
39. Eusko Jaurlaritzako 68/2000 Dekretua, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. Irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak hiri-ingurunean; Oinezkoen ibilbideak, Parkeak, lorategiak, plazak eta espazio libre publikoak, Eskailerak, Arrapalak, Aparkalekuak, Komun publikoak.
40. Eusko Jaurlaritzako 68/2000 Dekretua, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. Eraikinetara sartzeko baldintza teknikoak; Kanpoko espazioak, eraikin-barrurako sarbidea, Barruko komunikazioak: Komunikazio horizontalak, komunikazio bertikalak. Aparkalekuak. Bizitegi-eraikinak. Baldintza orokorrak.
41. Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua: Etxebizitzaren barruko baldintzak. Gurgil-aulkia erabiltzen duten edo mugikortasun urria dutenentzako etxebizitzak; Etxebizitzaren erreserba.
42. Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua: Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldatze-obra urbanizazioetan eta eraikinetan. Aplikazio-esparrua. Aplikaziorako salbuespena, erabilgarritasun-irizpideak
43. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa. Xedea eta aplikazio-eremua. Definizioak. Zarata-mapak egitera behartuta dauden subjektuak.
44. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. Xedea. Definizioak. Lurzoruen kalitatearen deklarazioaren kasuak.
45. Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Xedapen orokorrak, baldintza tekniko eta administratiboak. Aplikazio-esparrua. Funtsezko eta oinarritzko dokumentuak. Oinarritzko eskakizunak. I. Eranskina, Proiektuaren edukia; II. Eranskina, Obra-jarraipenaren dokumentazioa; eta III. Eranskina, Terminologia.
46. Bergarako plangintza orokorra. Estatu, Autonomia edo Foru mailako beste Administrazio Publikoen organoen eskumenak: Eduki orokorra eta Bergarako udalerririkiko eragina (ingurumena, urak, errepideak, trenbideak, etab.).
47. Otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorra.
48. Irailaren 30eko 165/2008 Dekretua, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.
49. Ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako hiri-lurretan jartzekoak diren Ekintzapide Nekagarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuekin erabili beharreko Teknikazko Arauak onartzekoa.

50. Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. Xedapen orokorrak eta obren proiektuaren eta exekuzioaren faseetan segurtasuna eta osasuna zaintzeko xedapen espezifikoak. Langileen eskubideak.
51. Urriaren 23ko 26/2007 Legea, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa. 2004/35/CE Zuzentaraua bere gain hartuta.
52. Abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretua, non onartzen den Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea zati batean garatzeko Erregelamendua.

BERGARAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Bases reguladoras de la convocatoria para la provisión, mediante sistema abierto de concurso-oposición, de la plaza de Jefe del Departamento Municipal de Ordenación del Territorio, Urbanismo y Medio Ambiente.

Primera. Objeto de la convocatoria.

Constituye objeto de la presente convocatoria la provisión en propiedad, mediante sistema abierto de concurso-oposición, de la plaza de Jefe del Departamento Municipal de Ordenación del Territorio, Urbanismo y Medio Ambiente, encuadrado en la escala de Administración General, en la clase de Técnicos Técnicos Superiores, clasificado en el grupo A1; plaza que se encuentra vacante en la tabla del personal funcionario del Ayuntamiento de Bergara.

El puesto de trabajo se integrará en el Departamento Municipal de Ordenación del Territorio, Urbanismo y Medio Ambiente, con las funciones y tareas principales que se relacionan en la base segunda.

Al puesto de la presente convocatoria le corresponde el nivel 13 de la Tabla Retributiva que recoge el convenio regulador de las relaciones laborales del personal del Ayuntamiento de Bergara, así como el nivel lingüístico 4 preceptivo, con la fecha de preceptividad cumplida. No se ha realizado la valoración de esta plaza, de modo que la misma será aplicada con efectos retroactivos respecto al primer día del nombramiento.

El régimen de dedicación de la plaza es de jornada ampliada con disponibilidad absoluta. La jornada laboral será la que anualmente establezca el ayuntamiento, considerando la naturaleza del puesto y sus necesidades específicas.

La lista de las personas aspirantes que, habiendo superado los ejercicios eliminatorios de la Fase de Oposición, excedan del número de plazas convocadas, podrá ser utilizada para cubrir las necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares.

Segunda. Funciones.

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

1.- Las que le corresponden como jefe de departamento y responsable de organización.

- Como jefe, responsable y coordinador del personal del Departamento Municipal de Ordenación del Territorio, Urbanismo y Medio Ambiente:
 - Realizar el seguimiento del trabajo de cada miembro del personal, proponiendo medidas de mejora de rendimientos, formación,

- reorganización... fortaleciendo la comunicación y el liderazgo con cada uno de ellos.
- Proponer medidas para la adecuación de las tareas a asumir por el departamento y para su funcionamiento.
 - Organizar y supervisar el trabajo del personal.
 - Aprobar licencias, calendarios y distribuir el trabajo.
 - Cuidar la disciplina.
- Elaborar el plan de gestión del departamento, conformar la propuesta de su presupuesto, tras su aprobación responsabilizarse de su gestión, y redactar la memoria anual.
 - Respecto al departamento y a su ámbito, promover la coordinación también con el personal de otros departamentos que comparten responsabilidades en materia de medio ambiente.
